

Elkartoki proiektua:

Patioa denona da

Laburpena: Elkartoki eskolako patioen markoan garatzeko programa esperimental da, dinamika eta harreman komunitarioak hobetzeko gai izan nahi duten prototipo eta interbentzioen bitartez espazioa eraldatzea proposatzen duena.

Gako-hitzak: Eskolako patioak, Diseinu parte-hartzailea, Identitate-aniztasuna, Balio barneratzaileak, Sorkuntza kolektiboa, Programa.

Abstract: Elkartoki is an experimental programme situated in the scholar playgrounds that proposes to take part in those spaces through interventions able to improve the community relations, from an equity perspective.

Keywords: Playgrounds, Collaborative design, Plural identity, Inclusive values, Collective creativity, Programm.

Ane Abarrategi eta Maddi Texeiro

ttipi Studioko kideak dira, non hiriaren, komunitatearen eta erakundeen inguruan elkarlaneko prozesuak diseinatu eta kudeatzen dituzten. Hirigintzan, Parte-hartzean, Komunitate-garapenean eta Berrikuntza sozialean dira adituak.



Bidaltze data: 2016/04/06

Onartze data: 2016/05/04

Eskoletako patioen egoeraz

Eskolako patioa ume askok bizi eta esperimentatzen duten lehendabiziko espazio publikoa da. Toki hauen diseinu eta ezaugarri fisikoek eta horien kudeaketa-ereduak umeen jokoeran eta jarreretan eragin handia duten mezuak eta ikasketak transmititzen dituzte. Patioak eskolaren egunerokoan denbora eta espazio esanguratsua hartzen duen arren, hezkuntzaren eremu periferikoan geratu dira, eta, ondorioz, ez dira behar bezala zaindu eta pentsatu. Horrek gatazka eta problematika zehatzak ekartzen ditu maiz: jolas batzuek besteek baino garrantzi handiagoa hartzen dute eta espazioak ez ditu kalitatezko harremanak eta esperientziak bultzatzen.

2014-2016 ikasturteetan Elkartoki programa 3 eskolatan garatu egin da: 2014-15ean, Zabala (Getxo) eta Karmelo (Bilbo) ikastetxeetan programa pilotuen bitartez, eta 2015-2016an, ordea, San Nikolas Ikastolan (Getxo) dimentsio osoago batekin. Eskola horietako patioei so eginez gero, jolastokien irudi antzekoa topatu dugu, ñabardurak ñabardura. Hiru eskolek mota eta tamaina ezberdinak izanik, patioen espazioaren oinarritzko ezaugarriak antzekoak dira; nagusiki porlanezko lurzoru lauak dituzte oinarri eta futbolekin zein saskibaloian aritzeko kirol-kantxa handiek espazio zentrala hartzen dute. Bestetik, hiri-inguruneen patioak izanik ere, naturaren presentzia eskasa edo ezdeusa da kasu orotan.

Getxoko 2 ikastetxeek hiri-inguruneen kokapena izanik, haien patioen muga nabarmenenak orubearen dimentsioa eta eraikinen adina dira. Batak zein besteak patioaren azalera txikiarekin arazoak dituzte gaur egun eta patio-

espazioak zabaltzeko estrategia propioak erabiltzen dituzte; San Nikolas goraka hazi den ikastetxea da, eta Zabalak, berriz, ondoko erakunde batek lagatako patioak erabiltzen ditu aldiro.

Bilboko Karmelo ikastetxearen kasua bestelakoa da, eraikuntza berriko eskola denez, eskola hasieratik diseinatzeko aukera izan dute. Hala ere, eskolako patioaren planteamenduan beste eskoletako eredua errepikatzen da: kirol-kantxen azalera nagusiak eta bestelako jardueretarako espazioen kalitate falta.

Parte-hartzea eta aniztasuna

Jatorriz atsedendialdiak, eskola barruko orduekin alderatuta, jolas- eta jarduera-askatasuna ezartzen duten denbora-tarteak izan dira. Patioetako interbentzio tipifikatuetatik aldentze aldera, patioaren testuingurua, berezko dinamikak eta umeen identitate-aniztasuna kontuan hartzea beharrezkoa den moduan, umeak espazio hauen sorkuntza-prozesu osoan zehar parte-hartzaile aktibo bihurtuko dituzten diseinu- eta interbentzio-prozesuak ere derrigorrezkoak dira. Horretarako, eskola-komunitatearen neurriera egokitutako parte-hartze mekanismoak nahitaezkoak izango dira: patioa partekatzen duten umeen aniztasuna jaso eta txiki zein nagusien parte-hartze gaitasunak kontuan hartuko dituen diseinu parte-hartzaile prozesua, alegia.

Elkartoki programa behetik gorako sorkuntza-prozesuan oinarrituta dago, eskolako patioaren erabiltzaileak, ikasleak bereziki, proiektuaren muinean jartzen dituelarik. Sorkuntza kolektiborako Design Thinking-ean oinarritutako



Irudia - Ikasle-batzordea eraldaketarako patioak aukeratzeko.
Egilea - Elkartoki.



Irudia - Patio-behaketan, altxorak eta tranpak.
Egilea - Elkartoki.

metodologia erabiltzen da, prozesua jolasaren eta bestelako sorkun-tza-tekniken bidez dinamizatuz. Horrela, fase ezberdinetan egituratutako programari esker, adin ezberdinetako umeek eskolako patioen gainean eragiteko helburua izango duten lanak (arkitektonikoak eta artistikoak) garatzen dituzte: jolastokien inguruko azterketa, diseinu berria eta eraikuntza fisikoa ikasleek garatzen dituzte. Sorkuntza-saio eta tailerrez gain, diseinu eta esku-hartzeak erabakitzeke ikasle-batzorde bat ere sustatzen da.

Elkartoki programa honako irekiera- eta itxiera-fase hauetan egituratzen da:

Espazioaz jabetu. Eskolako patioaren inguruko beharrak eta desioak identifikatzen dira. Zenbait dinamikaren bidez, eskolako patioak sortzen dituen jarrera eta sentimenduak behatu, ulertu eta horien inguruan hausnartzen da. Emaizta bezala, espazioaren erabileren zerranda eta bertan gertatzen diren gatazken ikuspegia eskuratzen dira.

Espazioa asmatu. Patioari begirako agertoki desiratuak asmatu eta berauek espazioan lekua hartuko duten artefaktu edo interbentzioetan islatzen dira. Ideia ezberdinak landuko dira eta aurrerantzean eraikiko den lanaren lehenengo zirriborroetatik behin betiko diseinuetara doan ibilbidea egingo da, materiala, teknika eta erreminta ezberdinak erabiliz. Emaizta bezala, patioan eragitea bilatuko duten ideia sorta eta patioa eraldatzeko proposamen konkretuak eskuratzen dira: erabilerak, funtzioak, aspektua, forma,

¹ Diseinuak modu parte-hartzailean sortzeko irekiera- eta itxiera-faseak dituen prozesua proposatzen duen metodologia.

diseinua, esanahiak, kokalekuak, etab. Informazio hori erabilita patioarako interbentzio osoa zehaztu ahal da.

Espazioa eraldatu. Asmatutako artelanak eta artefaktuak patioan eraikiko dira umeekin eta eskola-komunitatearekin. Obren eta artefaktuen gauzatzea ere modu parte-hartzailean egingo da, eraikuntza eta produkzioa auzolanen bitartez gauzatuko delarik.

Diseinuaren pedagogia

Elkartoki programa prozesu pedagogikoa da bere horretan, eskolako umeak parte-hartze prozesu batean sartzeaz gain, diseinuaren pedagogia ere egiten delako. Proiektuaren helburuen artean berdintasuna eta balio barneratzaileak bultzatzea dago eta patioaren dinamikak eraldatzea bilatzen da, genero-perspektibatik jolaserako eremu askotarikoagoak eta barneratzaileagoak sortzeko, eta horretarako diseinua erraminta gisa erabiltzen da.

Prozesuan diseinuak eskaintzen dituen tekniken bidez (behaketa kasu), umeak espazioaren eta haren erabileren arteko harremanaz jabetzen dira. Espazioen diseinua modu batekoa zein bestelakoa izan, erabiltzaileengan eragina duela ere ikusten dute tailerretan. Gainera, patioaren behar eta desioak lantzean, umeek besteen erabilera eta egoerak entzun/ulertu eta norberarenak adierazteko momentuak sortzen dira, besteenganako enpatia landuz. Diseinuak proposatzean, eskola-komunitate osoaren beharretan pentsatzen dute.

Bestetik, denon patioa sortze aldera, artefaktu eta interbentzioen elkarrekiko sorkuntza eta negoziazio bat egiten da prozesu osoan zehar, bai tailerretako talde-lanetan, baita ikasle-batzordean ere. Elkartoki programa, hasierako proposamenetatik bukaerako auzolanera, ikasleek modu kolektiboan egiten duten ibilbide bat da. Horrela, prozesuaren emaitza «denon patioa da»; jolastokia, norbanakoaren desio eta ideiak (bata) eta eskolakideenak (besteak) bateragarri egiten dituen ondare kolektibo bihurtzen da.

Azkenik, patioa eraldatzeko egiten den auzolana bera «denon patioa» sortzeko bitarteko garrantzitsua ere bada. Auzolanean patioaren eraldaketak «eskuz» eta era kolektiboan egiten dira eta umeek elementu ezberdinen egikaritzean parte hartzen dute. Espazioaren eraldaketa fisikoan aritzean, umeek espazioarekiko bestelako lotura mota bat esperimintatzen dute, sortzailearen eta sortutako espazioaren artean harreman estua sortzen baita. Gainera, autoeraikuntza-prozesuan taldea bera ere eraikitzen da modu sinboliko batean, guztion lanarekin guztiontzat izango den espazioa eraikitzen delako elkarrekin.

Sorkuntza artistikoa

Elkartokin sorkuntza artistikoa diseinu parte-hartzailearen osagarria da. Interbentzioen diseinu-prozesuan zehar, murriztaileak diren «pilota bai ala ez» eztabaidetatik aldendu eta ideia berrien sorrera ahalbidetzeko asmoz, umeen sormena indartzen saiatzen da. Zentzu honetan eta sormenaren lanketarekin lotuta, diziplina anitzetan ari diren artistak gonbidatzen dira prozesuan zehar tailer artistikoak emateko. Saio horietan artistek teknika eta disziplina artistiko zehatzak lantzerako begirako tailerrak ematen dituzte eta eskola-komunitatea lengoia artistikoaren eta sorkuntza kolektiboaren eremura hurbiltzen da. Dantza, bideoa, eskultura, instalakuntzak, marrazketa... horien guztien bitartez patioa beste modu batera begiratzen eta imajinatzen dute umeek. Horrela, saio artistikoan landutakoak diseinutailerretan garatzen dena aberasten du eta ikuspuntu irekiago bat eskaintzen dio esperientziari. Hezkidetzeta eta parte-hartzeaz gain, artea eta diseinua lantzen dira, patioaren eraldaketa fisikoa gai horietan sakontzeko bitarteko gisa landuz.

Proiektuaren balorazioa

Elkartoki proiektua Eusko Jaurlaritzako Kultur Sailaren Sormen Lantegiak diruz lagunduta garatzen ari da 2014tik 2016ra, Ttipi Studiok sustatuta. Programaren ibilbidea laburra izanik, eskolek eta eskola-komunitateak jasotako inpaktua ebaluatzeko goizegi dela uste dugu. Patioan egindako interbentzioek bertako dinamiketan izan duten sakoneko eragina neurtzeko tresnak ere falta dira oraindik. Hala ere, programak sustatzen dituen partaidetza-ohiturak eta balio barneratzaileak umeengan eragina izaten ari direla frogatu izan dugu, prozesuan zehar umeek botatzen zituzten ideia eta hausnarketetan islatzen baitziren. Prozesuan zehar, umeek eskola-espazioarekiko duten lotura sendotu da eta umeek eskola-komunitate eta espazioarekiko kontzientzia areagotu dute.

Bestetik, 2015-16 programan saio artistikoak txertatzea



Irudia - Hankaz gora tailerrean Manu Urangaren Gio Bat-ekin.
Egilea - Manu Uranga.

hautu egokia izan dela ondorioztatu dugu, diseinu-saio eta saio artistikoen artean berrelikadura bat ekarri duelako, eta tailerretako emaitzetan ikusi da. Gainera, eskola bera eta eskolaz kanpoko artistak elkartzeak irakaskuntza ugari sorrarazi ditu harremanetan, eta praktika artistikoak eskola-eremuan aplikatzeko duten potentziala sumatu da.

Azkenik, Elkartoki espazioarekiko etengabeko ariketa den heinean, eskolak hasitako ibilbideari bere kabuz jarraitu eta integratzeko moduak topatzea falta dela uste dugu. Programa kudeatzen duen bitartekariaren paperatik, eskola aktore nagusia den eredu batera pasatzea beharrezkoa dela uste dugu, betiere eskolari prozesua zehazteko laguntza ematen zaion eredu sustatuz. Horregatik, lanabesak eskuragarri jarri eta prozesuaren definizioan laguntzaile eta artista kolaboratzaileen uztarketa duten beste bitartekaritzeta- eta partaidetza-eredu batzuk lortzeko bidean jarrai-tzen dugu.

III